


# garai modernoak



barrendik 200-300

1A maila

**ikaslearena**

## EGILEAK

BIZKAIKO AEK eta HABE  
Proiektuaren arduraduna:  
Partehartzaileak:

**Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
**Urtzi Barrenetxea Iparragirre** (Bizkaiko AEK)  
**Joseba Irazabal** (Bizkaiko AEK)  
**Jone Aboitz** (Arabako AEK)

© HABE 2001. ISBN 84-86968-32-1  
Legezko Gordailua: SS-412/01  
Inprimaketa: **GERTU Inprimategia. Oñati.**

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Bizkaiko AEK-ri materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Ikastunitate hau Charles Chaplinen *Garai Modernoak* filmean oinarrituta dago.

# garai modernoak

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

ikaslearena



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

### 2. Atzak

- |                                  |    |
|----------------------------------|----|
| <b>A Ataza:</b> Pelikulari buruz | 8  |
| <b>B Ataza:</b> Gure lantegi hau | 10 |
| <b>C Ataza:</b> Lan zoragarria   | 13 |
| <b>D Ataza:</b> Manifestazioa    | 16 |

### 3. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Autoebaluazio-orria | 21 |
|------------------------|----|

### 4. Material osagarriak

- |                                   |    |
|-----------------------------------|----|
| <b>E Ataza:</b> Lantegiko lagunak | 22 |
|-----------------------------------|----|

## 1.

### LAN-EGITASMOA

Ikastunitatearen gai nagusi LAN BALDINTZAK ditugu. Charles Chaplinen *Garai modernoak* filmaren pasarte batzuk ikusiko ditugu eta hainbat gai buruz mintzatuko gara: **filma beraz, langileen bizimoduaz, lan arazoez** eta horien **inguruan hedabideek jotzen duten paperaz** ere jardungo dugu.

Testu batzuk ahozkoak izango dira (bideoaren bidez entzungo ditugu eta gero geuk ere antzekoak sortuko ditugu) eta besteak idatzizkoak.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (6. or.)

### A. ATAZA: PELIKULARI BURUZ

- *Garai modernoak* filmari buruz dakigunaz mintzatu.
- Filmari buruz mintzatzen den bideoa ikusi.
- Diskurtsoaren segmentuak josteko lotura elementuak landu.
- Ikastunitatean egingo dena labur aipatu. (8. or. lib.)

MINTZ / ENTZ / GRAM

### IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(21. or. ik. lib.)

### MATERIAL OSAGARRIA

### E ATAZA: LANTEGIKO LAGUNAK

- Filmeko pertsonaien deskripzioak entzun.
- Beste pertsonaia batzuen deskripzioak ahoz egin. (22. or. lib.)

ENTZ / GRAM

### B ATAZA: GURE LANTEGI HAU

- Langileen bizimoduaz mintzatzen den gutuna irakurri.
- Gutuna erabilia **nominalizazioa** landu.
- Ezagutzen ditugun bestelako lan egoera txarrak salatzen dituzten gutunak idatzi. (10. or. lib.)

IRAK / GRAM / IDAZ

### D ATAZA: MANIFESTAZIOA

- Titularrak irakurrita egunkarietan irakurriko denaz hipotesiak egin.
- Egunkarietako berriak irakurri taldeka eta elkarri kontatu.
- Filmeko manifestazioa ikusi eta egunkari bakoitzak esandakoa baloratu.
  - Gure inguruko egunkariak arbelera atera eta gai ezberdinen inguruan duten trataeraz mintzatu.
  - Ziurtasun eza adierazteko egiturak landu (16. or. lib.)

MINTZ / IRAK / GRAM

### C ATAZA: LAN ZORAGARRIA

- Filmaren pasarte bitxi bati buruz mintzatzen den elkarrizketa entzun.
- Ikasleek entzundakoa elkarri kontatu.
- Aipatutako filmaren pasartea ikusi eta komentatu.
- Elkarrizketaren transkripzioa erabilia aditz-aspektua landu. (13. or. lib.)

ENTZ / MINTZ / GRAM

## ATAZA: PELIKULARI BURUZ

Ataza honetan Charles Chaplin-en pelikula baten sinopsia entzuteko aukera izango duzu, eta zuk pelikula horri buruz daukazun datuak zeintzuk diren esan. Lokailu batzuk aztertzeo aukera ere izango duzu. Ataza honen bitartez, bestalde, ikastunitate honetako mintzagaia zein izango den jakingo duzu.

1

- Zinezalea zara? Asko dakizu film, aktore, zuzendari eta abarri buruz? Hemen duzu hori erakusteko aukera. Hasteko, esan zer dakizun GARAI MODERNOAK pelikulari buruz:

- ☛ Zein da protagonista?
- ☛ Pelikula zaharra da ala berria?
- ☛ Zeri buruzkoa da?
- ☛ .....



- *Garai modernoak* oso film ezaguna da eta film horri buruz galdera batzuk egin dizkiegu hiru laguni. Irakurri galderak eta ea erantzun egokiak aukeratzen dituzuen.

■ **Badakizue nor den *Garai modernoak* pelikularen zuzendaria?**

- Bai jakina, Orson Welles da.
- Nik uste dut zuzendaria Charles Chaplin dela.
- Pelikula honen zuzendaria Neil Armstrong da.

■ **Eta zeintzuk dira aktoreak?**

- Aktore nagusia Orson Welles bera da.
- Ba, protagonista Charlot da, Charles Chaplinen pertsonaia ezaguna.
- Protagonista Santiago Segura da eta gero beste ezagun batzuk ere agertzen dira.

■ **Badakizue noizkoa den?**

- Pelikula oso zaharra da, 1910 edo 1911koa uste dut.
- Pelikula duela berrogei urtekoa da gutxi gorabehera, 1960koa edo.
- Pelikula hau gutxi gorabehera 1930ekoa izango da.

■ **Kolorez eginda dago ala zuri-beltzean?**

- Zuri-beltzean eginda dago.
- Kolorez eginda dago. Kolorez egin zen lehenetarikoa da.

■ **Eta mutua da ala badauka ahotsik?**

- Ez, ez da mutua.
- Ez da guztiz mutua. Esaldi batzuk esaten dira baina oso gutxi.
- Pelikula mutua da bai.

■ **Zein motatako pelikula da, komikoa, beldurrezkoa, tragedia,..?**

- Umorea badauka baina ez da komedia huts bat. Kritika sozial zorrotza ere badauka.
- Umore pelikula bat da. Barre piloa egiten duzu hasieratik amaitu arte.
- Ez da batere komikoa pelikula hau. Nahiko tristea eta gogorra da.

■ **Badakizue zein den pelikularen gaia?**

- Fikziozko pelikula da. Etorkizunean gure bizimodua zelakoa izango den azaltzen da.
- Lantegi handi bateko langile baten bizimodua kontatzen du.
- Bizimodu modernoari buruzkoa da pelikula: musika moderno, jantziak...



- Orain bideo-pasarte bat ikusiko duzu. Bertan, lagun batek pelikularen sinopsia egingo digu eta emandako erantzunak zuzenak ziren konprobatu ahal izango duzu.
- Ondo hitz egiteko ez da nahiko lexiko asko ezagutzea, gramatika akatsik ez egitea eta esaldi politak egitea. Esaldi horiek ondo lotu behar dira euren artean. Jarraian duzun testuan bideoko lagunak esan digun guztia daukazu, baina esaldiak lotzeko hizkuntz forma batzuk testutik atera ditugu. Ea bakoitza bere tokian idazteko gai zaren (batzuetan bat baino gehiago sartu ahal izango duzu).

## LOTURA LOGIKOAK

Bueno, ba, pelikula hau oso polita da. Zuzendaria Charles Chaplin bera dugu eta protagonista.....bera dugu, nola ez!....., esan behar dugu bere azken filmea dela eta Charlot bera agertzen den azken filmea, eta bueno, oso filme zaharra dugu, 31koa edo. ...., ez da bere hasierako pelikulak bezain sinplea. Pertsonaia bera landuagoa dago eta gaia ere konplexuagoa da. Filmea zuri-beltzean da, bere pelikula guztiak bezalaxe, ..... ez da mutua, behintzat ez guztiz mutua. Kasu honetan esaldi solte batzuk eta musika.....badira. Umoretxu izan..... ezin esan komedia hutsa denik, zati batzuk oso tristeak dira. Bueno, gaia zera da: lantegi handi batean hasten da eta bertako langile baten bizimodua kontatzen digu. Gizon pila bat agertzen da makinaz inguratuta, ....., makina asko izan arren ezin esan bizitza erraza denik. Bizitza oso gogorra egiten da. Eta, bueno, horren inguruko kritika egiten du. Esan behar da kritika soziala ikusteak garai hartan ez zitzairela gehiegi gustatu Estatu Batuetako zenbait jenderi eta hala ere berak filme hau eta gero, beste filme batzuk ere egin izan zituen.

dena dela  
baina  
arren  
gainera  
ere  
baina

- Ikusi al duzu pelikula hau? Zer iruditu zaizu? Zergatik? Zer iruditu zaizu entzun dugun sinopsia? Zergatik?..... Galdera hauek komentatu denon artean.

## ATAZA: GURE LANTEGI HAU



Charlotten lantegia ezagutuko dugu ataza honetan, bideo-pasarte batean ikusiko baitugu bertako giroa. Bertako langile batek idatzitako gutuna ere irakurriko dugu eta azkenik, geu ere antzeko gutun bat idazten saiatuko gara.

2

- Ba al dakizu nolakoa den Charlotten lantegia? Ez? Ea bada, bideo-pasarte bat ikusiz ezagutuko duzue!
- Jontxu ez dago oso pozik lanean. Charlotten lantegian egiten du lan eta ez dabil batere gustura. Horregatik gutun bat idatzi dio Mikel bere lagunari. Mikel sindikatu bateko ordezkaria da. Irakurri gutuna eta ea Jontxuk kontaktzen duen guztia egia den ala ez asmatzen duzun.

## GURE LANTEGI HAU

*Aupa Mikel!*

*Zelan bizi zara sindikatuan lan egiten? Bulegoko beharra lantegikoa baino hobea izango da, ezta? Ba, lantegian ditugun arazo batzuk komentatzeko idazten dizut. Badakit zeu ere hemen ibili zarela lanean eta gure kontuen berri daukazula, baina lantegiko egoera asko aldatu da azken urteotan. Gero eta larriagoa da.. Honelako baldintzetan lan egitea ezinezkoa da. Lantegi guztia mekanizatu nahi dute eta azken boladan makina berri pila ekartzen ari dira, baina langileok gero eta okerrago bizi gara.. Arduraduna egun osoan ibiltzen da gure atzean oihuka. Esklabuek bezala lan egitea nahi dute. Baina guk erantzun egiten diegu, e! Geuk ere badakigu oihu egiten. Baina txarrena kontrola da. Bideoakamarak jarri dituzte leku guztietan eta egiten dugun guztia kontrolatzen dute. Komunean ere jarri dute pantaila handi bat. Eta morroi batzuk, polizia jantzita, lantegian ibiltzen dira batetik bestera dena kontrolatzen. Ezin dugu horrelakorik jasan. Arazo honen aurrean zerbait egin behar dugu. Langileok oso ondo konpontzen gara eta gure artean giro atsegina eta elkartasun handia dago. Nagusiekin berba egiten saiatu gara, baina ez digute jaramonik egin nahi. Guk honen aurrean zerbait egitea erabaki dugu. Baina komenigarria izaten da lehenengo sindikatuekin berba egitea. Horregatik idatzi dizut gutun hau. Grebara joan baino lehen nahiago dugu zuek sindikatukoek nagusiekin berba egitea. Eta hau da dena. Beno ba, ahal duzunean erantzun edo telefonoz deitu. Zure erantzunaren zain egongo gara.*

*Jontxu*

- Zer? Egia al da lagun honek kontaktatu duen guztia? Zergatik ez duzu bideo-pasarte berririko ikusten zuk uste duzuna egiaztatzeko?
- Taldeka jarrita, Jontxuk kontaktatu dizkigun okerreko datuak ezabatu eta lantegian benetan gertatzen dena jarri. Horrez gain, sar ezazue gutunean beste datu bat, zuek nahi duzuen: lantegian gertatzen den benetako beste datu bat, edo zuek asmatutako gezurren bat.
- Bukatu al duzue? Ea bada! Orain gutun guztiak ozen irakurriko dituzue eta talde bakoitzak gehitu duen datu berria zein den esan. Horrez gain, ea Jontxuk esandako okerreko datuak modu berean zuzendu dituzuen komentatu.

- Orain, momentuz gutuna gorde egingo dugu.
- Jontxuren gutunean aditzak nominalizatu barik dituzu. Irakurri adi eta aditzak behar bezala idatz itzazu.

### NOMINALIZAZIOA LANTZEN

Aupa Mikel!

Zelan bizi zara sindikatuan lan egiten? Bulegoko beharra lantegikoa baino hobea izango da, ezta? Ba, lantegian ditugun arazo batzuk komentatzeko idazten dizut. Badakit zeu ere hemen ibili zarela lanean eta gure kontuen berri daukazula, baina lantegiko egoera asko aldatu da azken urteotan. Gero eta larriagoa da. Honelako baldintzetan (LAN EGIN) ..... ezinezkoa da. Lantegi guztia (MEKANIZATU)..... nahi dute eta azken boladan makina berri piloa ekartzen ari dira, baina langileok gero eta okerrago bizi gara.. Arduraduna egun osoan ibiltzen da gure atzean oihuka. Esklabuek bezala (LAN EGIN)..... nahi dute. Baina guk erantzun egiten diogu, e! Geuk ere badakigu (OIHU EGIN)..... Baina txarrena kontrola da. Bideokamarak jarri dituzte leku guztietan eta egiten dugun guztia kontrolatzen dute.. Komunean ere jarri dute pantaila handi bat. Eta morroi batzuk, polizia jantzita, lantegian ibiltzen dira batetik bestera dena kontrolatzen. Ezin dugu horrelakorik (JASAN) ..... Arazo honen aurrean zerbait (EGIN)..... behar dugu. Langileok oso ondo konpontzen gara eta gure artean giro atsegina eta elkartasun handia dago. Eta nagusiekin (Berba EGIN)..... saiatu gara, baina ez digute (Jaramon EGIN)..... nahi. Guk honen aurrean (ZERBAIT EGIN)..... erabaki dugu. Baina komenigarria izaten da lehenengo sindikatuekin (HITZ EGIN)..... Horregatik idatzi dizut gutun hau. Grebara joan baino lehen nahiago dugu zuek sindikatukoek nagusiekin (Berba EGIN)..... Eta hau da dena. Beno ba, ahal duzunean erantzun edo telefonoz deitu. Zure erantzunaren zain egongo gara.


Jontxu

- Gutun osoa hartuko dugu, egindakoa ondo dagoen begiratzeko.




### 3

- Charlotten lantegian ezezik, beste hainbatetan ere langileak baldintza gogorretan bizi dira. Zuek ezagutzen al duzue salatzeko moduko beste lan egoerarik? Zeintzuk?



- Taldeka, nahi duzuen egoera aukeratu eta horixe salatzeko gutuna idatziko duzue. Gutuna nori idatziko diozuen ere erabaki beharko duzue.



- Gutun guztiak ozen irakurriko ditugu eta guztion artean baloratu.
  - Gutunetan azaltzen diren lan egoerak ohikoak dira?
  - Zuek inoiz bizi izan duzue horrelako egoerarik?
  - Eta inoiz idatzi al duzue horrelako gutunik?
  - Zure lantegian / lantokian honelako egoerak ematen al dira?
  - .....

## ATAZA: LAN ZORAGARRIA

Charloten lantegian gauza xebreak gertatzen dira. Langile batek horietako batzuk kontatuko dizkigu. Zuk zati bat entzun eta zure ikaskide bati kontatuko diozu. Berak ere beste zati bat kontatuko dizu zuri. Horrez gain, lantegian gertatutako xebreak horiek ikusi egingo dituzu bideo-pasarte batean. Horrela, langileak gertatutako guztia ondo gogoratzen duen egiaztatuko duzu.

- Charlotek arazo bat izan du gaur lanean. Horrenbeste torlojo sartu eta sartu, horren arin ibili behar... azkenean burua galdu du eta iskanbila ederra sortu du lantegian. Jarraian lankide baten kontaketa entzungo duzu, baina lehenago irakur itzazu esaldi hauek. Lankidearen kontaketa entzun ondoren esaldien artean gertatu direnak aukeratu beharko dituzu eta hurrenkeran jarri.




### ZER GERTATU OTE DA?

- Kalera atera da.
- Lankideak oihuka hasi dira eta makinak gelditu egin dituzte.
- Makinako zinta atzera ekarri dute eta handik atera dute.
- "Giltza ingeles" handi batekin lankideen sudurrak okertzen hasi da.
- Emakume lodi bat ikusi du.
- Poliziar kapela kendu dio.
- Zinta garraiatzaile baten gainean etzan da.
- Langileei koipea bota die aurpegira.
- Makina bat erre egin du.
- Nagusiari belarrondoko bat eman dio.
- Guztien artean Charlot harrapatu dute.
- Arduradunak zarata entzun du eta etorri egin da.
- Makinan sartu da barru-barruraino.
- Makinen mandoekin jolasten hasi da.
- Zoroetxera eroan dute.
- Arduradunari sudurra okertu dio giltza ingelesarekin.
- Emakume lodia atzetik lasterka hasi da.
- Poliziak eta zoroetxekoak etorri dira.
- Berrito sartu da lantegian.
- Pote bat koipe hartu du.

- Lankide baten kontaketa entzungo duzue orain, talde erdiak hasierakoa eta beste erdiak bukaerakoa.
- Entzun ondoren, binaka jarriko zarete (talde bakoitzeko partaide bat) eta elkarri kontatuko diozue entzundakoa.
- Behin gertatu den guztia jakinda, har itzazue lehen irakurri dituzuen esaldiak ("Zer gertatu ote da?") eta lehenengo benetan gertatu diren ekintzak identifikatu. Gero, ekintza horiek kontaketa orden berean antolatu beharko dituzue.



- Bideo-pasarte batean langile horrek kontaktutakoak ikusteko aukera izango duzue, hau da, Charloten lantegian gertatu diren kontuak. Ikusi ondoren, esan pasadizo horiek kontatu dizkigun langileak dena ondo gogoratzzen zuen ala ez.



- Bukatzeko, langileak kontatu digunaren transkripzioa aztertuko dugu. Nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork, ..... hau nahaste-borrastea. Irakur ezazu testua eta kasu bakoitzean behar duzun aukera idatzi.

## AUKERA ANINTZ

**ALBERTO** -Badakizue zer gertatu den gaur lantegian? Langile bat zoratu egin da eta kristoren iskanbila .....  
(1) morroiak. Ba, kontua zera da, atsedean hartzen hasi gara. Denok gelditu gara, baina morroi horrek lanean segitu du. Halako batean, zinta garraiatzailearen gainean etzan da. Makina piztuta egon da eta zintak makinaren barruan .....(2) gizona.

**MAITE** -Eta zer egin duzue?

**ALBERTO** -Ba, oihuka hasi gara eta arduradunek makina .....(3). Atzera ekarri dute zinta berriro eta gizona handik atera dugu guztion artean. Eta orduan... ba, morroiak giltza ingeles handi bat izan du eskuan. Giltza ingelesarekin egiten du lan berak. Ba, giltza hartu eta lankideen sudurrak okertzen hasi da.

**MAITE** -Ez da izango?

**ALBERTO** -Eta orduan, arduradunak zaratak entzun ditu eta gugana etorri da. Eta berari ere egin dio, giltza ingelesa hartu eta sudurra .....(4).

**MAITE** -Pozarren ibiliko zen, ba. Umore ona dauka horrek baina!

**ALBERTO** -Beno, eta gero kalera irten da eta han emakume lodi bat agertu da. Emakumeak jantzia botoi handi batzuk torlojuak bezalakoak eroan ditu. Orduan morroia emakumeari begira .....(5), zoro aurpegiarekin eta haren atzetik lasterka hasi da. Gero lantegian sartu da berriro, makinaren mandoak dauden tokira joan da eta dena nahasten hasi da. Palanka bat gora, bestea behera, botoi guztiak sakatzen hasi da, beno.. Azkenean makina bat .....(6) morroiak.

**MAITE** -Zelako desastrea!

**ALBERTO** -Eta gero? Gero pote bat koipe .....(7), makinetan koipea emateko pote horietako bat, badakizu zelakoak diren, ezta? Ba horrelako bat hartu du, gugana etorri da eta koipea aurpegira botatzen .....(8) guri.

**MAITE** -Gutziz burutik jota dago, e!

**ALBERTO** -Eta gainera, gu lanean egon garenez, ba, ezin izan dugu ezer egin. Bera harrapatzeko makina gelditu dugu baina gelditu dugun bakoitzean berak martxan ipini du berriro eta denok lanera. Eskerrak azkenean zoroetxeak eta poliziaren bat ere etorri direla. Han .....(9) guztien artean, anbulantzia batean .....(10) gizona, eta zoroetxera .....(11).

**MAITE** -Zelako istorioa, txo!

**ALBERTO** -Bai, eta horrela segitzen badugu lanean, guztiok amaituko dugu zoroetxean

1. a. Sortu da  
b. Sortu du  
c. Sortu zaio

2. a. Sartu da  
b. Sartu du  
c. Sartu dio

3. a. Gelditu diote  
b. Gelditu da  
c. Gelditu dute

4. a. Okertu zaio  
b. Okertu dio  
c. Okertu du

5. a. Geratu zaio  
b. Geratu du  
c. Geratu da

6. a. Erre egin da  
b. Erre egin du  
c. Erre egin zaio

7. a. Hartu ditu  
b. Hartu dio  
c. Hartu du

8. a. Hasi zaigu  
b. Hasi gara  
c. Hasi da

9. a. Hartu diote  
b. Hartu dute  
c. Hartu du

10. a. Sartu da  
b. Sartu dira  
c. Sartu dute


11. a. Eroan dute  
b. Eroan ditu  
c. Eroan diote

# ATAZA: MANIFESTAZIOA

Filmeko pasarte bati buruz bi egunkarik argitaratutakoa irakurriko duzue. Egunkari desberdinek diotena elkarri kontatuko diozue eta bideo-pasarte batean benetako gertaera ikusiko duzue. Azkenik, hedabideei buruz hitz egingo dugu.

1

- Berri bera emateko modu asko izaten dira. Sarritan gertakari bera oso ikuspegi ezberdinekin aurkitzen dugu egunkari, telebista edo irrati batzuetan edo besteetan. Eta hemen dugu horren adibide argia: gaur, Charlotten lantegiko langileek manifestazio bat antolatu dute eta manifestazioa istiluetan amaitu da. Eta horren berri egunkari bitan aurkitu dugu, baina bakoitzak bere modura kontatuko digu. Irakur itzazu goiko esaldiak eta beheko titularrak kontuan hartuta ea esaldi bakoitza zein egunkaritan agertu den asmatzen duzun. Eta bide batez ea esaldiok zein hurrenkeratan azaldu diren esateko gaitzen.



## ZEINEK ESAN DU?

HERRITARRON AHOTSA

**TITULARRA**

“Poliziak langileen protesta isildu nahi”

---



---



---



---



---



---



---

GURE LURRA

**TITULARRA**

“Istilu larriak langileen manifestazio amaieran”

---



---



---



---



---



---



---



- Bi egunkari horietan agertutako berriak irakurriko dituzue eta aurreko kuadroa ondo bete duzuen egiaztatu.



25.zenb. Salneurria 125 pta / 5 libera

## HERRITARRON AHOTSA

### Poliziak langileen protesta isildu nahi

LBE (Langile Batuen Elkarte) sindikatuak gaur goizean deitu duen manifestazio amaieran istilu larriak egon dira poliziaren interbentzioaren ondorioz. Manifestazioa IPARMETAL enpresako langileek bizi duten egoera salatzen deitu du LBEk eta bertan hamar mila lagunetik gora hartu dute parte. Manifestazioa Axular plazan hasi da goizeko hamarretan eta kale batzuetatik inolako arazorik gabe joan da Iparragirre kalera heldu arte. Baina lehenengo manifestariak Iparragirre kalean sartu bezain laster, poliziak zaldiz agertu dira eta manifestazioaren kontra gogor hasi dira.

Langileen ordezkari batzuk poliziaburuekin hitz egiten saiatu dira, baina hauek ez diete jaramonik egin langileen eskariei eta indarrez sakabanatu dituzte manifestariak. Istiluen ondorioz, zauritu diren hamar langile ospitalera eroan behar izan dituzte eta poliziak manifestari bat atxilotu egin du. Berri hau idazteko orduan langilea komisaldegian zegoen.



### Manbé Lela Bilbon

*Senegaleko Manbé Lela kantaria Bilboko Plaza Berrian*

■ Mundu osoan ezaguna den Manbé Lela musikaria Bilboko Etnic Jaialdian izango da aurtengo edizioan, dena dela



# Gure lurra

25.zenb. Salneurria 125 pta / 5 libera

## MONETEN KOADROAK ARTE EDERRETAKO MUSEOAN

*Azkenean, eta lan handia egin ondoren Monet margolariaren lanak ikusgai izango ditugu Bilboko Arte Ederretako Museoan. Erakusketa ekainaren 6tik irailaren 4ra izango da. Alkateak esan duenaren arabera, "lan handia izan da udalarentzat margolari ospetsu honen lanak Bilboratzea".*

## Istilu larriak langileen manifestazio amaieran

**G**aur goizean IPARMETAL lantegiko langileek egin duten manifestazioan istilu larriak izan dira hainbat manifestarik izan dira. Manifestaziorako deia LBE (Langile Batuen Elkartea) sindikatuak egin du eta bertan ehunka lagun batu dira. Manifestazioa Axular plazan hasi da goizeko hamarretan eta lasaitasun osoan joan da Iparagirre kalera heldu arte. Bertan, manifestariak bidea zaintzen egon diren polizien kontra oihu egiten hasi dira.

Poliziaburuak langileak lasaitzen saiatu dira, baina horietako batzuek makilak atera dituzte eta poliziei eraso diete. Orduan, kideak defendatzeko, polizia batzuk zaldiz agertu dira, eta manifestariak sakabanatu dituzte. Istiluen ondorioz, hainbat pertsona zaurituta suertatu dira (horien artean polizia bi) eta zauritu batzuk ospitalera eroan behar izan dituzte. Beste aldetik, Barne Sailak adierazi duenez, poliziak probokatzailen burua atxilotzea lortu du.



Manifestariak makilak erabili dituzte polizien kontra egiteko



- Bideo-pasarte batean benetako gertaera ikusiko duzue. Ondoren, komentatu ea egunkarietako berriek gertatutakoa ondo azaldu duten.

## 2

- Lagun batek (Ainhoak) dioena entzungo dugu.
  - ✍ Ainhoak zein egunkaritan irakurri du berria?
  - ✍ Ainhoa fidatzen al da irakurritakoaz?
  - ✍ Zein da egunkari horri buruz daukan iritzia?
  - ✍ Zer uste du manifestazioari buruz?
- Ikusi ez dugun zerbait kontatzean, dugun zalantza hori adierazi nahi izaten dugu, eta horretarako euskaraz hainbat hitz edo egitura erabiltzen ditugu: *ei, omen, antza, ematen du...* Entzun duzun elkarrizketan Ainhoak horrela hitz egin dio Aitor bere lagunari. Orain adibidea ikusita, testuan azpimarratu ditugun esaldiak irakurri eta ea beste era batera idazteko gai zaren.


## HALAXE DIO EGUNKARIAK

- AINHOA** Iskanbila ederra gaurkoa, ezta?  
**AITOR** Zer gertatu da, ba?  
**AINHOA** Ez dakizu, ala? Goizean manifestazioa egin dute IPARMETAL enpresako langileek, badakizu. Eta kristoren liskarra sortu ei da.(.....)
- AITOR** Ez esan!  
**AINHOA** Ni ez naiz bertan egon, baina egunkarian irakurri dut. Hasieran dena ondo joan da antza, (.....) baina Iparragirre kalera heldu direnean hasi dira istiluak.
- AITOR** Eta zelan izan da, ba?  
**AINHOA** Ba, manifestazioa Iparragirre kalean sartu da eta han, ba, poliziak egon ei dira (.....) eta langileak haien kontra oihuka hasi ei dira (.....). Ez dakit, halaxe dio egunkariak. Eta gero makilak atera dituzte antza (.....) eta poliziei eraso egin diete.
- AITOR** Langileek poliziei eraso?  
**AINHOA** Ez dakit. Nik, irakurri, horrela irakurri dut, baina nork daki zela gertatu den. Beno, eta gero, lagunak defendatzeko edo, ba, beste polizia batzuk agertu dira eta orduan borrokan hasi dira denak. Eta poliziak zaldiz etorri direla irakurri dut (.....).
- AITOR** Bai, horrelako manifestazioak daudenean gehienetan zaldiz etortzen dira.  
**AINHOA** Ba, zaurituak-eta egon ei dira (.....), e! Polizia batzuk ere bai, antza. Batzuk ospitalera eroan behar izan dituzte. Eta morroi bat atxilotu ere egin dute. Manifestarien burua izan dela ipintzen du egunkarian (.....)
- AITOR** Auskalo! Han kasualitatez agertu den gizajoren bat izango da,  
**AINHOA** Ziurrenez bai.


## ADIBIDEA

Manifestazio bat egin **ei** da  
 Manifestazio bat egin da, **antza**  
 Manifestazio bat egin dela **irakurri dut** (entzun dut / esan didate /.....)  
 Manifestazio bat egin dela **ematen du**

- Demagun Ainhoak *Gure lurra* egunkaria irakurri beharrean *Herriaren ahotsa* egunkaria irakurri duela. Nola kontatuko du irakurritakoa?  
Testuaren transkripzioa hartu eta behar diren aldaketak egin itzazu.



- Testuak ozen irakurriko ditugu. Bat al datoz egunkari horretako artikuluekin?
- Azter ditzagun orain hemen irakurtzen ditugun egunkariak, kioskoetan aurki ditzakegunak: Zein egunkari ezagutzen duzue?



- Zer iruditzen zaizu astean zehar egunkari desberdinetan gai desberdinei buruz agertzen diren berriak bildu eta horiekin eta komentario batzuekin horma irudiak egiten baditugu?

## 1. AUTOEBALUAZIO-ORRIA

- Ikastunitate honetan egin ditugun lanak zerrendatu:

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

- Ikastunitate honetako zein atal gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

GEHIEN: \_\_\_\_\_  
 GUTXIEN: \_\_\_\_\_

- Zein iruditu zaizu lanik zailena? Eta errazena?


ZAILENA: \_\_\_\_\_  
 ERRAZENA: \_\_\_\_\_

- Hizkuntz-forma eta esakuneei dagokienez, baloratu ikusi ditugunak erabiltzen dakizun ala ez, 1etik 5era :

Loturak (baina, gainera...)  
 Nominalizazioa (geuk ere badakigu oihera egiTEN)  
 Aditzaren erregimena (sartu da / du)  
 Ziurtasun eza (omen, ei, antza...)  
 .....

- Zer hobetzen saiatu behar duzu?

.....  
 .....  
 .....



## ATAZA: LANTEGIKO LAGUNAK

Ataza honetan filmean agertzen diren pertsonaia batzuei buruz aritzeko aukera izango duzu. Hasteko, pertsonaia batzuen definizioak entzun eta argazki batzuen artean identifikatu egin beharko dituzu. Ondoren, gainontzeko pertsonaien deskripzioak egingo ditugu eta, bukatzeko, ikaskideen deskripzioak ere egingo ditugu.

- Begiratu adi irudi hauei eta pelikulan agertu direnak identifikatu. Gero deskripzio batzuk entzungo dituzu: Edurne, Jontxu, Nikasio eta Obdulio nolakoak diren esango digute. Entzun deskripzioak eta bakoitza nor den asmatu behar duzu.


## NORTZUK OTE DIRA?



1



2




3



4



5



6



7





8



9



NORTZUK OTE DIRA?



- Izenik gabe geratu diren pertsonaia guztiak agertzen al dira filmean? Zeintzuk?
- Bideo-pasarte bat ikusiko dugu asmatu duzuen ala ez ikusteko.
- Deskripzioak egiten ditugunean askotan konparaketak egiten ditugu (zu baino altuagoa da, ez da horren berria, .....). Entzun ditugun deskripzioetan ere konparaketa batzuk egin dira eta konparaketa horiek azpimarratu dizkizugu. Lehenengo esaldia ordeztzeko aukera batzuk proposatzen dizkizugu. Egoki ikusten duzuna aukeratu, eta gero azpimarratuta dauden beste esaldi guztiak nahi duzun bezala ordeztu. Hori bai, zentzu bera izan behar dute.

## ESALDIAK ORDEZTU

Edurne lantegiko idazkaria da. Oso neska polita da. 25 bat urte izango ditu eta duela gutxi hasi da lanean gurekin. Nagusiaren senidea dela entzun dut, iloba edo. Aurpegi polita dauka, baita itxura ona ere, baina politena ilea da. Oso ile polita dauka, hori-horia. Etorri zenean ilea luze-luzea zeukan baina orain laburragoa dauka (1). Normalean jantzi luzerekin etortzen da lanera, besteok baino askoz ere dotoreago.



Jontxu lankide bat da. Oso tipo jatorra da, baina isil-isila. Mutua dela ematen du. Hor ematen du egun osoa, makinaren aurrean, marinel jantzia kendu barik lan eta lan. Oso langilea da, beste batzuk ez bezalakoa. Eta adina, ba, Jontxu ez da Edurne bezain gaztea, baina hogeita hamar urte baino gehiago ez du izango. Eta hamar urte baino gehiago daroaz lanean. Oso gazte sartu zen lantegian.



Obdulio beste lankide bat da. Oso txikia da, ni baino txikiagoa oraindik, eta nire makina berean egiten du lan. Berrogeita bost bat urte ei dauzka, baina zaharrago ematen du. Oso zahar dago. Ilea zuri dauka eta aurpegia zimurrez beteta. Nahiko txarto zainduta dago. Eta hau ere ez da oso berritsua, ez horixe. Ez da Jontxu bezain isila; zerbait galdetzen diozunean, bai eta ez gutxienez erantzuten dizu, baina gehiagorik ez. Eta beti egoten da umore txarrez, gainera. Ez da oso lankide atsegina.




Eta Nikasio? Hori bai elementu ederra. Obdulio baino zatarragoa da, oraindik. Beti dabil oihuka, beti errietan. Hor ibiltzen da beti alkandora zuriarekin eta bere tripa handiarekin, batetik bestera zer egiten dugun ikusten. Obdulio baino nagusiagoa izango da, ziurrenez, berrogeita hamar urte baino gehiago izango ditu, baina ez dago Obdulio bezain zahar. Jakina, egun osoan oihu baino ez du egiten. Baina lanik? Oraindik ez dut ikusi mailu bat ukitzen. Lan egitea bere erlijioaren kontra doala ematen du.


- Aukeratu (1) esaldia ordeztzeko baliagarriak diren aukerak:
  - ✍ Orain ilea ez dauka lehen bezain luze
  - ✍ Orain lehen baino ile luzeagoa dauka
  - ✍ Lehen ilea ez zeukan orain bezain luze
  - ✍ Orain ilea lehen bezain luze dauka
  - ✍ Lehen orain baino ile luzeagoa zeukan



- Orain deskribatu diren pertsonaia horietako bat aukeratu eta bere deskripzioa egin ezazu idatziz:



- Irakur ezazu ozen idatzi duzuna. Zure ikaskideek zein pertsonaia den asmatu beharko dute.
- Zergatik ez dugu gauza bera egiten gela honetako lagunak deskribatuz? Ea bada, aukera ezazu ikaskide bat eta idatzi hemen bere deskripzioa:



- Deskripzio guztiak ozen irakurriko ditugu, izena aipatu gabe. Deskripzio bakoitza nori dagokion asmatu behar duzue lehenengo. Gero, galdera hauek komentatu:
  - ✍ Ados al zaudete deskripzioekin? Zergatik?
  - ✍ Zerbait aldatuko zenukete? Zer?

# OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the yellow area.

# OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the yellow area.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



ISBN 84-86968-32-1



9 788486 968311